

GIPUZKOA

23 upategi lehiatuko dira aurten ere Santio Eguneko Sagardo Txapelketan

Epamahaian emakume batek hartuko du parte estrainei 44. edizio honetan

ELI AIZPURU AZPEITIA

22 Julio 2016
08:50

Azken urte hauetan, urtero-urtero ari dira Landeta, Loiolatxo eta Loiolabide elkarteetako ordezkariak Azpeitiko Sagardo Egunerako emakumeak animatzeko deia egiten eta aurtengoan badirudi bat behintzat izango dela, estrainei, epamahaiko kide. Hala ere, antolatzaileek, norbaitek sagardoa ateratzen parte hartu nahi badu, beraiekin kontaktuan jartzea besterik ez duela adierazi dute.

44. edizioa izango da aurtengo Sagardo Txapelketa. 44.a jarraian. Izan ere, aurrez antolatu ohi zen Sagardo Eguna. Beraz, Sebastian Lizaso antolatzaileak asteazken iluntzean Añota sagardotegian egindako agerraldian esan bezala, «datorren urtean 50. urteurrena» ospatuko da.

Lizasok berak eman zuen edizio honetako nobedadeen berri, alkate Eneko Etxeberria eta festetako batzordeburu Mikel Ibarzabalekin, Añotako ordezkariekin eta gainerako antolatzaileekin batera.

23 upategi izango dira aurten ere lehian Sagardo Eguneko txapelketan. «Ohiko upategiak» izango dira, «arkupe bakoitzeko, bat». Horrez gainera, beti bezala, bi txapelketa izango dira. Bata, epamahaiko kideek erabakitakoa eta herritarren saria, bestea. Elkarteetako hainbat kide aritzen dira probaketa lanetan eta hauek eman ohi dute, 'sari ofizialaz' gainera, beste txapel bat.

Horretaz aparte, festa giroa nagusituko da goiz osoan zehar eta sagardoarekin batera, XVIII. Gazta Lehiaketa edo Euskadiko Blonda txapelketa ere izango dira. Nola ez, bezperan prestatzen hasitako txekor erre dastatzeko aukera ere izango da eta arraina gustukoagoa dutenek, heguluze pintxoak ere izango dituzte aukeran. «28 gaztagile izango ditugu aurtengo txapelketan eta ganadu lehiaketari dagokionez, 85 buru izango dira lehian», azaldu du Mikel Ibarzabalek.

Pintxoen salmentan bildutako dirua, «hirugarren mundura bideratuko da», gaineratu du. Batetik, Afrikara, Tanzaniako herri batean, Mikel Garmendia misiolari azpeitiarrak daraman proiektura. Bertan, urte honetan izan den lehortek eragindako kalteen aurrean, hainbat familiari laguntza eskainiko zaie. Bestetik, Indiara, Elena Albizurik zuzendutako beste proiektu batera, 'Osasun eta hezkuntza proiektuak ahalbidetzeko».

Sagardo kata kantatua

Estrainei, gaur, ostirala, sagardo kata kantatua antolatu dute Sagardo Eguneko antolatzaileek. 20:00etan hasita, Plazan (Sanagustinpen) etnologo baten laguntzaz eta Loidisaletxe eta Beñat Lizaso bertsolariek girotuta sagardo probaketa egingo da. Ekitaldi irekia da, beraz, antolatzaileek herritarrak animatu nahi dituzte parte hartzera.



Sagardo Eguneko antolatzaileak eta udal arduradunak Añota ordezkariekin batera. / E.A.



Final Masters Jai Alai World Tour en Zumaia + degustación ga...
JAI-ALIVE

12€ 9€ Llévate lo



¿Soltero y mayor de 40?
Juntamos PAREJAS gracias a nuestro test de compatibilidad. Regístrate ya.
www.edaring.es



Tu verano en melia.com
Tu verano en la playa con Hoteles Melia con hasta 25% dto. ¡últimas habitaciones!
melia.com/reservas-verano-2016



Vente a la Mutua
¿Te han subido el seguro del coche? Vente a la Mutua y sea cual sea te lo bajamos.
www.mutua.es/mejor-precio



Ford KUGA
Descubre el nuevo Ford Kuga.
Ford.es/Kuga



Cuando habla el silencio.
El silencio habla de cosas importantes. El nuestro de belleza.
www.difundaeljitsu.com



El mejor regalo de JAZZTEL
Fibra al precio del ADSL, Instalación+2meses y Smartphone+Tablet GRATIS
www.jazitel.com